

2021eko IRAILAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **9 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2021eko irailaren 30ean, arratsaldeko zazpitan, Udaltzarrak bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udaltzarako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak Miren Letamendia Belloso and. (telematikoki)
Jesus Arana Gomez jn.
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.
Iban San Martin Hernandez jn. (telematikoki)
Leire Arana Olabarrieta and.
Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. (telematikoki)
Iker Basurko De Miguel jn.
Irene Urbietta Alberdi and.
Koldo Uribarri Zenekorta jn.
Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Mikel Goenaga Gubia jn. (telematikoki)
Ainara Landa Argote and.
Begoña Olaizola Elordi and.
Xabier Etxaburu Elu jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. (telematikoki)
Eider Illarramendi Azkue and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Patxi Elola Azpeitia jn. (telematikoki)
Oihane Delgado Pita and.

Jarduneko idazkaria Xabier Aranburu Soldevilla jn.

Kontu-hartzailea Karmele Lizaso Ubera and. (telematikoki)

Covid-19ak eragindako egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=1>

Alkate jaunak ADIERAZPEN INSTITUZIONALA irakurri du, Udalbatza osatzen duten taldeek adostua.

AFGANISTANI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Afganistanen gertatutakoaren eta bertako herriak bizi duen egoeraren aurrean, Zarauzko Udaleko taldeok honako adierazpen instituzional hau egiten dugu:

- 1- Giza eskubideen aurka egin diren eraso guztiak gaitzesten ditugu, eta Afganistango agintari berriei eskatzen diegu guztiz errespetu eta babes ditzatela nazioarteko lege humanitarioak, bai eta herritar guztien eskubide eta askatasunak ere.
- 2- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, batetik, Jaurlaritzak dituen baliabide propioetako plazak eskaintzeko Gobernu Zentralari nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzat, eta, bestetik, Gobernu Zentralak nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egiteko dituen plaza libreak erabiltzeko. Horretarako, Zarauzko Udalak konpromiso eta prestasun osoa du pertsona horiek gure udalerrian hartzen laguntzeko.
- 3- Eusko Jaurlaritzak 2018tik bultzatutako SHARE proposamenaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Bizi dugun migrazio-erronkaren aurrean erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzera eta islatzera bideratutako proposamena da SHARE. Erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzeak zera esan nahi du, gizarte inklusiboak eraikitzen bideratutako konpromiso arduratsuen bidez erantzuna partekatzea.
- 4- Nazioarteko babesa behar duten pertsonak sartzeko legezko bideak areagotzea eta dibertsifikatzea premiazkoa denez, Gobernu Zentralari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu jarraitzeko Euskadin aitzindaria den Babes Komunitarioa bezalako programak sustatzen. Babes Komunitarioa izeneko programak errefuxiatuen harreran eta integrazioan zuzenean parte hartzeko aukera ematen die herritarrei.
- 5- Nazioarteko komunitateari dei egiten diogu, bai Nazio Batuei, bai EBri, emakume eta neskatu afganiarren bizitza babestera bideratutako jarduerak abia ditzaten, egungo eta etorkizuneko elkarriketa- eta lankidetzeta-prozesu guztietan emakumeen eta neskatuen eskubideak bermatzeko baldintza bete dadin, baita pareko herritar gisa aitortuak izan daitezen.
- 6- Gure herrian bizi den komunitate afganiarrarekin hitz egitera animatzen ditugu Espainiako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza.
- 7- Afganistango emakume eta kolektibo ahulenek giza eskubideen arloan izan dezaketen atzerakadari arreta berezia emateko eskatzen dugu, eta Europako erakundeekin batera babes-eta asilo-neurriak lantzeko konpromisoa hartzen dugu.
- 8- Gainean dugun krisi humanitarioaren aurrean, Afganistango egoerak larriagotua, inoiz baino premiazkoagoa da migrazio-fluxuak humanizatzea eta igarobide seguruak ahalbidetzea. Horretarako, korridore humanitarioak eskatzen ditugu,

iheslari guztientzat ibilbide seguruak bermatzeko, jazarpenaren, gerraren edo giza eskubideen beste edozein urraketaren ondorioz beren herrialdeak utzi behar dituzten kasuetan.

2.- 2021eko UZTAILAREN 29ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=2>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2021eko uztailaren 26tik irailaren 24ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=3>

Segidan, Alkatezak 2021eko uztailaren 26tik irailaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2021eko uztailaren 26tik irailaren 20ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=4>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 26tik irailaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- 2022. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2021C2100003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=5>

Lehenik eta behin, **alkate** jaunak 2022. Urterako Ordenantza Fiskalak aztertzeko eta eztabaidatzeko jarraituko duten prozeduraren berri eman du.

BILKURAN AZTERTZEKO PROZEDURA

– AURKEZPENA

- Jarduneko idazkariak Batzordearen irizpena irakurri.
- Zinegotzi arduradunak Ordenantza Fiskalak eta irizpenaren ondorengo aldaketak aurkeztu.
- BOTO PARTIKULARRA. EH-BILDU
 - Boto partikularra defendatu
 - Taldeek beren iritzia azaldu
 - Bozkatu.
- 2022. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK
 - Taldeek beren iritzia azaldu
 - Bozkatu.

Aurkezpenaren atal honetan, **jarduneko idazkariak** irakurri egin du Antolakuntzako informazio-batzordeak 2021eko irailaren 21ean egindako bileran eman zuten irizpena.

Segidan, Ogasun eta Finantza arloetako zinegotzi arduradun **Arana** jaunak 2022. Urterako Ordenantza Fiskalen aurkezpena egin du, eta irizpena onartu ondoren egindako aldaketak azaldu ditu.

Ordenantza Fiskalen aztertzeke aurreikusitako prozeduraren arabera, hurrena, **EH-BILDU** udal taldeko bozeramaileak informazio-batzordearen irizpenari aurkeztutako boto partikularra defendatu, eztabaidatu eta bozkatu dute.

EH-BILDU TALDEAREN BOTO PARTIKULARRA

III.- ERREKARGUA

1.- Errekargua % 100etik % 150era igotzea.

2.- Errekargua izaten dituzten etxeen salbuespen baldintzak zorroztea honako kasuan:

Udal Gobernuak proposatutakoa	EH Bilduren proposamena
3.- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzak (soilik alokatutakoak, erabilera-lagapenak ez dira sartzen).	Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 12 hilabetez (edo 9 hilabetez modu jarraian) alokatuta egon diren etxebizitzak.

3.- Errekargua izaten dituzten etxeen salbuespen baldintzak zorroztea honako kasuan:

Udal Gobernuak proposatutakoa	EH Bilduren proposamena
11.- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.	Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak (Salbuespen hau etxebizitza bakar bati aplikatuko zaio) baldin eta gutxienez 1.000 kWh elektrizitate kontsumitu direla zergaren sortzapenaren aurreko urtean.

ARRAZOIA:

Zarautzen dagoen etxebizitzaren arazoa konpontzen lagunduko duten Ordenantza Fiskalak izateko hartu beharreko neurriak direla uste dugulako.

BOZKETA

Aldeko botoak:	8	8 EH Bildu
Kontrako botoak:	10	10 EAJ-PNV
Abstentzioak:	3	2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak

Horrenbestez, adierazitako botoen gehiengoarekin, atzera bota dute **EH-BILDU** taldeak aurkeztutako boto partikularra.

2022. urterako Ordenantza Fiskalak. Hasierako onespena

Azkenik, 2022. urterako Ordenantza Fiskalak eztabaidagai eta bozketan jarri dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	13	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, eta adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

Antolakuntzako Informazio Batzordeak 2022 urterako Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena aztertu da.

Horrenbestez, aipatutako Batzordeak hala proposatuta Udaltzarrak gehiengoz

ERABAKI DU:

Lehena.- Hasierako onespena ematea ondoko ORDENANTZA FISKAL hauen eranskinen aldaketari, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko:

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

1.- ORDENANTZA FISKALA: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

I.- KARGA TASA

a) Bi karga-tasa hauek aplikatuko zaizkio Ondasun Higiezin Hiritarren gaineko Zergari:

- Karga-tasa orokorra: % 0,1800

- Lurzoru industrialetan edo hirugarren sektorekotan kokatuta dauden ondasun higieziinei aplikatuko zaien tasa, balorazio-txostenen arabera: % 0,5887 (salbuespena: erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez duten eraikinetan kokatutako finkak).

b) Karga-tasa hau aplikatuko zaio Ondasun Higiezin Landatarren gaineko Zergari: % 0,6482

II.- HOBARIAK:

Eskabideak aurkezteko epea zazpi hilabetekoa izango da, urte bakoitzeko apirila eta urria bitartean, eta ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzea bezala izapidetuko da, dagokion ordainagiria ordaindu dela egiaztatu eta gero.

1.- Zerga-kuota osoaren % 50eko hobaria izango dute ondasun higiezin hauek: Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitza Hutsaren Programan" (466/2013 Dekretua, abenduaren 23koa) edo foru edo udal programa antzekoetan sartuta daudenak.

Hobari hori jasotzeko eskatu egin behar da, eta beharrezkoa izango da ondasunaren titularraren eta etxebizitza kudeatzen duen erakundearen arteko kontratua aurkeztea.

Hobarien gozamenerako beharrezkoa izango da aurrez Udalak hobari horiek aitortzea.

2.- Familia ugarietzako hobariak:

Hobarien ehunekoak uztailearen 24ko 154/2012 Dekretuan eta haren ondorengo aldaketetan araututako familia-errenta estandarizatuaren arabera kalkulatu dira, honela:

Familia-errenta estandarizatua:

	10.000 € baino gutxiago	10.000,01 €tik 15.000,00 €ra	15.000,01 €tik 20.000,00 €ra	20.000,01 €tik 25.000,00 €ra	25.000,01 €tik 30.000,00 €ra	30.000,00 € baino gehiago
HOBARIA	% 90	% 80	% 60	% 40	% 20	% 0

Familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko, honako hauek izango dira kontuan, betiere dekretu horren irismenarekin:

- Familia-unitatearen osaera
- Familia-errentaren maila
- Familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea

Familia-errenta estandarizatuaren maila kalkulatzeko, eragiketa hau egin behar da: familia-errenta zati familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea.

Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:

- Eskatzaileak,
- bere ezkontideak (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsonak, betiere eskatzailea ez bada emakumeen aurkako indarkeriaren biktima (eta egoera hori uztailearen 24ko 154/2012 Dekretuak eta haren ondorengo aldaketek ezarritako moduan egiaztatzen badu), eta
- bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabek.

Zerga-oinarri orokorraren eta familia-unitatea osatzen duten aitaren eta amaren –edo bikoteko kideen– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aurrezpenaren zerga-oinarriaren arabera ezarriko da familia-errenta. Aitorpen hori egitera behartuta ez daudenek inguruabar hori egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortzio kasuetan, hitzarmen arautzaile edo epai judizialaren arabera seme-alaben zaintza daukan aita edo ama eskatzailearen zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura hartuko da kontuan, eta horri egungo ezkontide edo izatezko bikotearen diru-sarrerak gehituko zaizkio, halakorik edukiko balu.

Familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea kalkulatzeko, familia-unitatea osatzen duen kide bakoitzari dagokion koefizienteen batura egingo da; jarraian adierazten dira:

1. Bi gurasoko familia-unitatea osatzen duen eskatzailea: 1,00
2. Ezkontidea edo izatezko bikotekidea: 0,5
3. Familia-unitatea osatzen duen seme edo alaba bakoitza: 0,3

Baldin eta eskatzaileak ezkontiderik edo bikoterik ez badu edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktima bada, adierazitako koefizienteari 0,3 gehituko zaio.

Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako bati % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna onartzen badio agintaritza eskudunak, edo mendekotasun egoera aitortuta badauka, 0,3 gehituko zaio dagokion koefizienteari (abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak eta horren garapeneko arauak xedatutakoari jarraiki).

Zerga-onuraren mugak:

- Familia-errenta estandarizatuaren zenbatekoaren arabera kalkulatu da hobariaren portzentajea.
- Balio katastrala 200.000 eurotik gorakoa bada, gehienez ere balio horri dagokion hobaria bakarrik aplikatuko da.
- Familia ugarien hobaria bateraezina izango da OHZri jarritako edo jarriko zaizkion beste zerga-hobari batzuekin (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga).
- Familia ugariako kideetako batek ere ezin du eduki udalerrian bizileku-izaerako beste higiezin baten titulartasuna % 50eko portzentajearen edo hortik gorakoan (edo jabetza osoaren % 100). Muga hori aplikatzeko, Udalak ofizios egiaztatuko du familia ugariako kide bakoitzak herrian duen bizitegi-izaerako higiezin bakoitzaren titulartasunaren portzentajea.
- Familia-unitatearen ohiko etxebizitza eta higiezin berean kokatutako ganbara edo trastelekua bakarrik hartuko da kontuan hobaria aplikatzean.
- Etxebizitza jabekidetzan edukiz gero, denen artean jabetzaren edo gozamenaren ehuneko ehuna eduki behar dute ezkontideek, izatezko bikoteek (halakorik bada) edo egoera horietan egon gabe ere familia-liburua dutenek edo seme-alabek.
- Higiezin bat ohiko etxebizitza izateko nahitaezkoa izango da higiezin horretan erroldatuta egotea zerga-hobaria jasotzeko eskubidea duen familia-unitateko kide guztiak.
- Hobariak ez du atzeraeraginezko ondorioz, hau da, ez da aplikatuko epe barruan aurkeztutako hobari-eskaera egin aurreko ekitaldietan.

Urtero eskatu beharko den hobari hau jasotzeko betebeharrak eta tramite formalak hauek dira:

1.- Subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izango da zergaren sortzapen egunean (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean) eta eskaera orria aurkeztu beharko du, hobariaren xede den higiezina zein den identifikatuta.

2.- Artikulu hauek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 28. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikulua, Zarauzko Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Ogasunaren Erregistroetan, eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

- Foru Ogasuna: Familia ugaria osatzen duten kide guztien PFEZ kontsulta edo, PFEZren gainbehera aurkeztera behartuta ez egotearen ziurtagiria.

- Foru Ogasuna: Ondasun Higiezinaren Kontsulta

- Eusko Jaurlaritza: Familia ugariaren tituluen kontsulta

- Foru Ogasuna: Halakorik balego, desgaitasuna edo mendekotasun egoera egiaztatzeke ziurtagiri eguneratua

Dena den, Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoa lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu ahal izango du.

III.- ERREKARGUAK:

Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean -hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez-, Zarauzko Udalak % 100eko errekarua eskatuko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie; zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak ere etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, erregistroko finka bakarra osatzen dutenean. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatua badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Errekargua ez aplikatzeari buruzko eskaerak urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik apirilaren 15era bitartean (egun hori barne) aurkezten badira eta onartzen badira, errekarurik gabe emango da uneko urteko ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokion ordainagiria.

Errekargua ez aplikatzeari buruzko eskaerak borondatezko kobrantza-epearen barruan aurkezten badira, edo hilabeteko epean, epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta onartzen badira, errekaru gisa ordaindutako zenbatekoaren itzulketa gisa izapidetuko da, egiaztatu ondoren ordainduta dagoela.

Jarraian zerrendatzen diren kasuetan errekarurik EZ da aplikatuko:

1.- Zergaren hobariren bat dutenak.

2.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Udal matrikulan alta emanda dauden jarduerekin lotutakoak.

3.- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzak (soilik alokatutakoak, erabilera-lagapenak ez dira sartzen). Kasu horretan, ondorengo agiriak aurkeztuko dira:

1. Interesdunak sinatutako eskaera.

2. Alokairu-kontratua, data eta sinadura behar bezala jarrita. Kontratu horretan adierazi beharko du higiezinaren helburua edo erabilera etxebizitzarena dela.

3. Zergaren sortzapenaren aurreko urteko errenten kobrantza-agiriak (banketxeokak).

Alokairu-kontratu horien berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

4.- Hirugarren Adinekoen Egoitza batean erroldatuta dauden pertsonen jabetzako etxebizitzak. Egoitzan sartu aurretik egoiliarren ohiko etxebizitza zenari soilik aplikatuko zaio hobari hau.

5.- Herentzia baten zati diren etxebizitzak, titularra hiltzen denetik 2 urteko epean.

Hori egiaztatzeko, heriotza-ziurtagiria aurkeztuko da.

6.- Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxebizitzak, urtarrilaren 1ean inor bertan erroldatuta ez dutenak, baina erroldatzeko izapideak zergaren sortzapen-urteko lehen hiruhilekoan eginda dituztenak.

7.- Legezko aurri-egoera formalki aitortua duten eraikinetan dauden etxebizitzak.

8.- Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.

9.- Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.

10.- Urbanistikoki antolamenduz kanpo modura kalifikatutako eraikinetan dauden etxebizitzak.

11.- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.

Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.

12.- Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta erroldatuta badago. Zaintza pertsonalen beharra mendekotasun-balorazio bidez frogatuko da. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

13.- Etxejabeak edo etxejabeen lehen graduako ondorengoak edo haien seme-alabak, gaixotasun larri baten ondorioz, gutxienez 3 hilabetez (jarraian edo tarteka) ingresatua egon badira, edo gaixotasunak zaintza bereziak behar baditu, edota aldi baterako, gutxienez 3 hilabetez (jarraian edo tarteka), mendekotasuna sortu badu.

2. ORDENANTZA FISKALA: JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

III. HOBARIAK

1.- Hobaria, kogenerazio sistemetatik abiatuta energia erabili edo ekoizten duten subjektu pasiboentzat:

-% 30eko hobaria, gehienez 20 Mw sortzen dutenentzat.

-% 50eko hobaria, gutxienez 20 Mw sortzen dutenentzat.

4. ORDENANTZA FISKALA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

I.- GEHIKUNTZA KOEFIZIENTEA:

Ezarritako kuota minimoak handitzen dira, turismoei 2,3853 eta gainerako ibilgailuei 2,2368 koefiziente orokorrak aplikatuta, baina honako salbuespen hauekin:

Turismoak

12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak. Gehikuntza koefizientea:	2,4691
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak. Gehikuntza koefizientea:	2,5290
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak Gehikuntza koefizientea:	2,6800
20 zaldi fiskaletik gorakoak Gehikuntza koefizientea:	2,6800

Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotorrak. Gehikuntza koefizientea:	2,4194
125 cc-tik beherako motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,4194
125 cc eta 250 cc arteko motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,4194
250 cc eta 500 cc arteko motozikletak Gehikuntza koefizientea:	2,6800
500 cc eta 1.000 cc arteko motozikletak Gehikuntza koefizientea:	2,8018
1.000 cc-tik gorako motozikletak. Gehikuntza koefizientea:	2,8018

14/1989 Foru Arauan ezarritako gutxieneko kuotetan eta goian adierazitako gehikuntza koefizienteetan oinarrituta finkatuko dira 2019tik aurrera ordaindu beharreko tarifak:

Ibilgailuaren potentzia eta mota

1. Turismoak

(€)

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	43,87
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	87,73
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	151,36
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	217,04
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	295,71
20 zaldi fiskaletik gorakoak	361,43

2. Autobusak

21 plaza baino gutxiagokoak	186,32
21etik 50 plazara bitartekoak	265,37
50 plaza baino gehiagokoak	331,71

3. Kamioiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg baino gutxiagokoak	94,57
Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 kg bitartekoak	186,32
Karga erabilgarriko 2.999tik 9.999 kg bitartekoak	265,37
Karga erabilgarriko 9.999 kg baino gehiagokoak	331,71

4. Traktoreak

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	39,52
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	62,12
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	186,32

5. Atoi eta erdi atoiak

Karga erabilgarriko 750etik 1.000 kg bitartekoak	39,52
--	-------

Karga erabilgarriko 1.000etik 2.999 kg bitartekoak	62,12
Karga erabilgarriko 2.999 kg-tik gorakoak	186,32

6. Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoreak	10,91
125 cc-rainoko motozikletak	10,91
125tik 250 cc-rainoko motozikletak	18,68
250etik 500 cc-rainoko motozikletak	41,41
500etik 1.000 cc-rainoko motozikletak	86,58
1.000 cc-tik gorako motozikletak	173,12

II.- APLIKAZIO ARAUAK

Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean, xedapen osagarrietan eta beste arau hauetan datozen kontzeptuak eta arauak hartuko dira kontuan, tarifak erabaki eta kobratzeko orduan:

- a) Automobilek bezalaxe ordainduko dute furgoiek, furgonetek, automobil-furgoneta erabiltzeko modukoek nahiz turismoen eratorriek (bakoitzak duen potentzia fiskalaren arabera), baldin eta 1.000 kg baino gutxiago eramateko baimena badute; hortik gorakoek, kamioek bezala ordainduko dute.
- b) Hiru gurpleko nahiz lau ibilgailuak mototzat hartuko dira, eta bakoitzak duen zilindradaren arabera ordainduko dute. Lau gurpleko arinek, dena den, moto txikiak bezala ordainduko dute.
- c) Ibilgailu artikulatuetan, arrasta-potentzia daramanak eta arrastatuak diren atoiak eta erdi-atoiak bakoitzak bere aldetik eta aldi berean ordainduko dute zerga.
- d) Autopropultsatutako makinek, bide publikotik trakzio mekanikodun beste ibilgailu batek garraiatu edo arrastatu gabe ibili ahal izanez gero, traktoreen tarifa ordainduko dute.
- e) Automobilak eta autokarabanak ere berdin hartuko dira, eta daukaten potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute.

III. HOBARIAK:

1. Zerga-kuotan % 95eko hobaria izango dute Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren Erregistroan honela sailkatuta dauden ibilgailuek: bateriadun ibilgailu elektrikoak (BEV); autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV); ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriak (PHEV), gutxienez 40 kilometroko autonomia dutenak; edo erregai-piladun ibilgailuak..
2. Zerga-kuotan % 40ko hobaria izango dute Trafikoko Zuzendaritza Orokorraren Erregistroan honela sailkatuta dauden ibilgailuek: ibilgailu hibrido entxufagarriak, <40 kilometroko autonomia dutenak; ibilgailu hibrido ez entxufagarriak (HEV); gas naturalarekin (GNC eta GNL) edo petrolio-gas likidotuarekin (GLP) bultzatutako ibilgailuak.
3. % 100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek. Ibilgailuak historiko gisa katalogatuta egon beharko du, eta trafiko-matrikula berezia izan.
4. % 50eko hobaria izango du familia-unitate bakoitzeko turismo bakar batek, baldin eta 16 zaldi-potentziatik beherakoa bada, bost plaza edo gehiago baditu eta, indarrean dagoen legediaren arabera, familia ugariko kideren baten jabetzakoa bada. Uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak eta haren ondorengo aldaketek arautzen duen familia-errenta estandarizatua ez da urteko 30.000 euro baino altuagoa izango.

Familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko, honako hauek izango dira kontuan, betiere dekretu honen irismenarekin:

- Familia-unitatearen osaera

- Familia-errentaren maila
- Familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea

Familia-errenta estandarizatuaren maila kalkulatzeko, eragiketa hau egin behar da: familia-errenta zati familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea.

Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:

- Eskatzaileak,
- bere ezkontideak (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsonak, betiere eskatzailea ez bada emakumeen aurkako indarkeriaren biktima (eta egoera hori uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak eta haren ondorengo aldaketek ezarritako moduan egiaztatzen badu), eta
- bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabek.

Zerga-oinarri orokorraren eta familia-unitatea osatzen duten aitaren eta amaren –edo bikoteko kideen– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aurrezpenaren zerga-oinarriaren arabera ezarriko da familia-errenta. Aitorpen hori egitera behartuta ez daudenek inguruabar hori egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortzio kasuetan, hitzarmen arautzaile edo epai judizialaren arabera seme-alaben zaintza daukan aita edo ama eskatzailearen zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura hartuko da kontuan, eta horri egungo ezkontide edo izatezko bikotearen diru-sarrerak gehituko zaizkio, halakorik edukiko balu.

Familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea kalkulatzeko, familia-unitatea osatzen duen kide bakoitzari dagokion koefizienteen batura egingo da; jarraian adierazten dira:

1. Bi gurasoko familia-unitatea osatzen duen eskatzailea: 1,00
2. Ezkontidea edo izatezko bikotekidea: 0,5
3. Familia-unitatea osatzen duen seme edo alaba bakoitza: 0,3

Baldin eta eskatzaileak ezkontiderik edo bikoterik ez badu edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktima bada, adierazitako koefizienteari 0,3 gehituko zaio.

Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako bati % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna onartzen badio agintaritza eskudunak, edo mendekotasun egoera aitortuta badauka, 0,3 gehituko zaio dagokion koefizienteari (abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak eta horren garapeneko arauak xedatutakoari jarraiki).

Urtero apirila eta urria bitartean eskatu beharko den hobari hau jasotzeko betebeharrak eta tramite formalak hauek dira:

1.- Subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izango da zergaren sortzapen egunean (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean) eta eskaera orria aurkeztu beharko du, hobariaren xede den motordun ibilgailua zein den identifikatuta.

2.- Artikulu hauek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 28. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikulua, Zarauzko Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Ogasunaren Erregistroetan, eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

- Foru Ogasuna: Familia ugaria osatzen duten kide guztien PFEZ kontsulta edo, PFEZren gainbehera aurkeztera behartuta ez egotearen ziurtagiria.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuaren datuak kontsultatzea
- Eusko Jaurlaritza: Familia ugariaren tituluen kontsulta
- Foru Ogasuna: Halakorik balego, desgaitasuna edo mendekotasun egoera egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua

Dena den, Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu ahal izango du.

Hobariak aplikatzeko arauak:

- Hobariak ezin izango dira metatu, eta altuena aplikatuko da beti..
- 1. eta 2. puntuetan aurreikusitako hobariak ofizioz aplikatuko dira ibilgailuari Zarauztzen alta ematen zaion 1. egunetik aurrera.
- 3. puntuan aurreikusitako hobariak ibilgailua historiko izaera lortu eta hurrengo urteko ordainagirian izango ditu ondorioak eta ofizioz aplikatuko da.

IV. SALBUESPENAK

1.- Ibilgailuen zergatik salbuetsita daude 14/1989 Foru Arauko 2.1 artikuluan a)tik g)ra bitarteko paragrafoetan adierazitako ibilgailuak.

2.- 2.1 artikuluko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesdunek eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta bertan ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren zergatia azalduko dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu ondoren, bera eman dela egiaztatzen duen agiria egingo du.

Aurreko ataletan jasotakoaren ondorioetarako, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan erroldatuta egon beharko dute, eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu, idatziz, salbuespena aitortzeko eskaera.

e) letrako salbuespenari dagokionez, ibilgailu bakar bati eman ahal izango zaio, urteko (alegia, urte horretako urtarrilaren 1ean Trafikoko Erregistroan alta emanda dagoenari). Gainera, urtarrilaren 1ean alta emanda zegoen ibilgailuari behin betiko baja ematen bazaio eta urte berean ibilgailu berri bati alta ematen bazaio, biek izango dute salbuespena.

2 atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, artikulua hauek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 28. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikulua, Zarauzko Udalak salbuespena eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Eusko Jaurlaritzaren, Foru Ogasunaren Erregistroetan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusian, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

1. Ezgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean:

a) Desgaitasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuak:

- Foru Ogasuna: Desgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua eta, kasuan kasu, mugikortasun urriko egoera egiaztatzekoa; biak ere organo eskudunak eginak.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Desgaitasuna duten pertsonen izenean dagoen zirkulazio-baimena.

Dena den, interesdunak, eskaerarekin batera ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia aurkeztu beharko du; polizan ohiko gidaria adieraziko da, eta bat etorriko da desgaitasuna duen pertsonarekin. Hau da, desgaitasuna duen titularrak egiaztatu egin beharko du bera dela ohiko gidaria, indarreko aseguru polizaren bidez.

b) Desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuak:

- Foru Ogasuna: Desgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua eta, kasuan kasu, mugikortasun urriko egoera egiaztatzekoa.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Desgaitasuna duten pertsonen izenean dagoen zirkulazio baimena.

Dena den, interesdunak, eskaerarekin batera, aurkeztu beharko ditu:

- Ibilgailuaren aseguru polizaren fotokopia, ohiko gidaria adierazten duena.
- Ibilgailua salbuespena aitortu zaion onuraduna garraiatzeko soilik erabiliko dela adierazteko zinpeko aitortpena.

2. Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria, Nekazaritza Ikuskaritzaren Kartila dutenak:

- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Zirkulazio-baimena
- Foru Ogasuna: Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofizialean alta emanda dagoela, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean.

Dena den, Udalak salbuespen guzti hauen eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu ahal izango du.

3.- Eskera egin eta hurrengo zergaldian jarriko dira indarrean salbuespenak, minusbaliotasunen ondoriozko salbuespenetan izan ezik (horrek, urte berean izango du eragina).

5. ORDENANTZA FISKALA: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA

ERANSKINA

IV.- HOBARIAK:

1.- Maila goreneko xedapenek behartzen dituztenak.

2.- % 95 arteko hobari orokorra: eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udalbatzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, udalbatzarreko kideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

2.1.- Interes arkitektoniko, arkeologiko eta etnografikoak duten eraikinak. % 95eko hobaria eraikinaren interesaren arabera. Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko ondare historiko-arkitektonikoko katalogoan banakatuta dauden higiezinak eta elementuak erreferentzia moduan hartuta, eta horien sailkapenarekin bat etorritik, eraikinak honako kategorietan banatzen dira:

- % 95: babes bereziko eraikinak
- % 40: babes ertaineko eraikinak
- % 20: oinarritzko babesak duten eraikinak, ingurumen-babeserako eraikinak eta toki-intereseko ondasun eraikinak

2.2.- % 95eko hobaria prestakuntza arautuko ikastetxeek egindako obrek.

2.3.- % 50eko hobaria nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerekin zerikusia duten eraikuntza, instalazio eta obrak, baita negutegiek ere.

3.- % 80ko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek irisgarritasun baldintzak hobetzen dituztenean eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeke egiten diren eraikuntzen, instalazioen eta obren kasuan. Hobari hau ezin da aplikatu eraiki berri diren eraikinetan egindako eraikuntza, instalazio eta obretan, ez eta eraikin baten zaharberritze osoa egitea litzatekeen eraikuntzen, instalazioen eta obren kasuan ere

4.- Babes ofizialeko eta zuzkidura-bizitokien etxebizitzetan kasuan ondorengo hobariak aplikatuko dira ere

- a.- % 50eko hobaria: Babes sozialeko etxebizitzak (BSE)
- b.- Etxebizitza tasatuak:
 - % 35eko hobaria bere salmenta-prezioak ez duenean gainditzen BSEren gehienezko prezioa bider 1,7.
 - % 25eko hobaria bere salmenta-prezioak gainditzen duenean BSEren gehienezko prezioa bider 1,7.
- c.- % 50eko hobaria zuzkidura-bizitokiek

Aurreko hobariak aplikatzeko, egoitza-erakin osoa babes publikoko etxebizitzetarako izango da, eta eraikitako garajeak etxebizitzaren eranskinak izango dira.

Baldin eraikineko etxebizitza guztiak babes publikokoak ez badira, edo tipologia anitzekoak badira, hobaria proportzioan aplikatuko da; hau da, babes publikoko etxebizitzak eraikitako etxebizitza guztiekiko zein portzentaje osatzen duten kontuan hartuta. Garajeak eraikitzen badira, baina babes publikoko etxebizitzaren eranskin modura sailkatzen ez badira, hobaria % 10ean murriztuko da.

Babes publikoko etxebizitzak eraikitako guztien % 25era iristen ez badira, ez da hobaririk aplikatuko.

5.- % 95eko 100eko hobaria eraikuntza, instalazio edo obretan, baldin eta:

- Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.
 - Haien xedea bada A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza.
 - Haien xedea bada energia birgaikuntza eta irisgarritasuna barne hartzen dituen higiezin birgaikuntza integrala. Horretarako, energia birgaikuntzaren xedea izan behar da A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzea.
 - Udalerriko auzo edo eremuetan energia berriztagarriak sartzeko birgaikuntza integraleko proiektuen testuinguruan egiten badira.
- Hobari hau aplikatuko da, bakar bakarrik, indarren dagoen legeriaren arabera derrigorrez inbertitu behar ez diren kopuruen gainean.

Hobariak Udalak ofizioz aplikatuko ditu edo subjektu pasiboek eskaera eginda.

Hala badagokio 1. atalean adierazitako hobaria aplikatuta ateratako kuotari aplikatuko zaio 2. atalean aurreikusitako hobaria.

Hala badagokio 1. eta 2. ataletan adierazitako hobariak aplikatuta ateratako kuotari aplikatuko zaio 3. atalean aurreikusitako hobaria.

Hala badagokio 1., 2. eta 3. ataletan adierazitako hobariak aplikatuta ateratako kuotari aplikatuko zaio 4. atalean aurreikusitako hobaria.

Hala badagokio 1., 2., 3. eta 4. ataletan adierazitako hobariak aplikatuta ateratako kuotari aplikatuko zaio 5. atalean aurreikusitako hobaria.

6 ORDENANTZA FISKALA: UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

ERANSKINA

a) Erabilera publikoko udal lurra okupatzea, merkantziak, eraikuntzako materialak, edukiontziak, hesiak, euskarriak, aldamiok eta antzeko beste instalazio batzuekin

Tarifak	€
---------	---

Materialak edo merkantziak, egunean m ² edo frakzio bakoitzeko	4,78
Edukiontzia (10 m ²) asteko edo frakzioko	19,91
Autogarabiak, plataforma jasotzaile motordunak, plataforma jasotzaile mugikorrek eta antzeko beste instalazioak, m ² edo frakzio eta eguneko edo frakzioko	0,74
Hesiak, aldamiok, karga-jasotzaileak eta antzeko beste instalazioak, egunean m ² edo frakzio bakoitzeko	0,51
Euskarriz edo zurkaintzeko beste elementuak, elementu bakoitzeko eta eguneko edo frakzioko	0,51
Eraikuntzako garabiak, txabolak eta siloak m ² edo frakzio bakoitzeko eta eguneko edo frakzioko	0,51
Obra, deskarga etab. egiteko gordetako aparkaleku, oinezko gune, espaloi eta abar, 10 m ² edo frakzioa / orduko (*), (**)	0,21
Obra, deskarga etab. egiteko gordetako aparkaleku, oinezko gune, espaloi eta abar, 10 m ² edo frakzioa / eguneko (*), (**)	1,64
Kaleak, espaloiak edo antzekoak ixtea:	
- Partziala	13,69 €/orduko
- Osoa	20,59 €/orduko

* Eskaerak egun osoak izan behar dute. Ordukako eskaerak egun bakarrekoak direnean bakarrik onartuko dira, eta segidako orduak izan behar dute.

* Eskaerak gutxienez 24 lan-orduko aurrerapenarekin ezeztatu beharko dira. Eskaera ezeztatu ezean ordaindu egin beharko da.

** Ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa 20,00 €tara iristen ez denean, aplikatuko den gutxiengoa 7 Ordenantza Fiskalaren m) ataleko Beste Batzuk "Obra, deskarga, etab. egiteko, aparkalekua gordetzea" lerroan jasotako 20,00 €ko tasa izango da.

b) Erabilera publikoko udal lurzoruak mahai, aulki eta antzeko beste elementu batzuekin okupatzea, irabazi asmoa dagoenean:

Tarifak	€/ hileko edo frakziokoTaldeak: 0 eta 1	€/ hileko edo frakziokoTaldeak: 2, 3 eta 4
1 Zona, 1. denboraldian, m ² edo frakzio bakoitzeko	4,16	4,36
1 Zona, 2. denboraldian, m ² edo frakzio bakoitzeko	1,49	1,57
2 Zona, 1. denboraldian, m ² edo frakzio bakoitzeko	2,07	2,18
2 Zona, 2. denboraldian, m ² edo frakzio bakoitzeko	0,76	0,80
Erabilera publikoko udal lurzoru egitura finkoekin okupatzeagatik ordaindu beharreko tarifak:		
1 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m ² edo frakzioko	4,16	4,36
2 Zona, 1. eta 2. denboraldian, m ² edo frakzioko	2,07	2,18

c) Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun-guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea.

TARIFAK	€
Hileko feria, egunean metro lineal bakoitzeko	4,05
Salmenta-postuak San Pelaion, jaiegunetan, postuko eta eguneko	39,60
Feriako atrakzioak, m ² -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	24,94
Txurro-denda, m ² -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	59,43
Kantinak, m ² -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	119,10
150 m ² -tik gorako zirkuak eta ikuskizunak, eguneko eta m ² -ko, edo dagokion frakzioa	0,13
150 m ² arteko ikuskizunak, eguneko eta m ² -ko, edo dagokion frakzioa	0,18
Izozki, gozoki, gaztaina eta abarren postuak, m ² -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	54,83
Produktuen erakusketa, salmenta edo erakustaldiak, eguneko eta m ² -ko, edo dagokion frakzioa	7,44

10 m ² -tik gorako okupazioko ekitaldi publikoak, baita politikoak ere, eguneko eta m ² -ko, edo dagokion frakzioko	3,75
Eskolak eta kirol materialaren alokairua, m ² -ko eta hileko, edo dagokion frakzioa	9,99
Loteria kioskoak	114,05
Artisautza Azoka: Zarauzko artisauek	0,00
Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeak, m ² -ko eta eguneko, edo dagokion frakzioa	11,96

d) Udal erabilera publikoko lurak okupatzea igogailu, antena eta antzeko beste elementu batzuekin

Tarifak	€
Igogailuak, sarbideetako arrapalak eta antzekoak, urtean m ² eta frakzioko	6,04
Antenak, urtean m ² eta frakzioko	231,61

e) Ibilgailuak finken barruko aldera sartzea eta horiek aparkatzeko herri-bidean erreserbak egitea

Pasabide lizentziak:

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	110,34
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	212,40
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	318,70
30 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	424,86

Erabilera pribatu eta kolektiboko lur eta eraikinetako aparkalekuetara sartzeko espaloi edo kale-ertzetako tarreak:

Tarifak	€
3 ibilgailurentzako edukiera, urteko	110,34
4 eta 10 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	212,40
11 eta 30 ibilgailu bitarteko edukiera, urteko	318,70
30 ibilgailutik gorako edukiera, urteko	424,86

Lekua erreserbatzea:

Tarifak	€
Lekua erreserbatzea, urtean m ² -ko edo frakzio bakoitza merkataritzarako erabilerarako	86,89
Lekua erreserbatzea, urtean m ² -ko edo frakzio bakoitza merkataritzarako erabilerarako, baina garraiatzeko zerbitzu publikoa eskaintzen dutenean	18,25

g) Udal erabilera publikoko lurak okupatzea elementu iraunkor ezberdinekin:

Urteko tarifak m²-ko, edo dagokion frakzioa	€
Edonolako mastak	75,30
Kokapen pribatuko informazio-seinaleak edo antzekoak	69,53
Aurreko epigrafeetan zehaztu gabekoak	69,53

h) Udal jabetzako edo administraziopeko landa-bideen aprobetxamendu berezia

Aprobetxamendu motaren arabera:

- a. Bideen erabilera egurrak garraiatzeko: 0,91 euro x egurra (m³ edo estereo bakoitzeko) x zeharkatutako bide publikoko km bakoitzeko.

- b. Bideen erabilera beste material batzuk garraiatzeko (lurra, harria, agregatuak, hiri-hondakin solidoak...): 1,34 euro x beste materialak (m³ bakoitzeko) x zeharkatutako bide publikoko km bakoitzeko.

i) Udal erabilera publikoko lurra okupatzea merkataritzako establezimenduekin zerikusia duten materialekin:

Tarifak	€/ urteko
Establezimenduko salgaiak, m ² edo frakzio bakoitzeko	49,69
Gainerako elementuak: publizitate-kartelak, elementu apaingarriak, hala nola, jardinerak, loreontziak..., m ² edo frakzio bakoitzeko	31,84
Kutxazain automatikoak, urtekoa	361,98
Salmenta makinak (bideoak, tabakoa, edariak, etab.), urtekoa	112,48

7. ORDENANTZA FISKALA: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

- e) Jarduera lizentziak ematea eta jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

1. ALDEZ AURRETIK BAIMENDU BEHARREKO JARDUERAK

A. Jarduera lizentziak ematea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	
- 300 m ² -tik behera	716,48
- 301 - 1.000 m ² bitarte	1592,21
- 1.001-2.500 m ² bitarte	2547,55
- 2.501 m ² -tik gora	3396,73
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
- 100 m ² -tik behera	318,45
- 101 - 250 m ² bitarte	636,88
- 251 - 500 m ² bitarte	1061,48
- 501 m ² -tik gora	2653,70
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	424,58
Bestelako jarduerak	
- 100 m ² -tik behera	212,30
- 101 - 250 m ² bitarte	424,58
- 251 - 500 m ² bitarte	636,88
- 501 m ² -tik gora	1698,36
Instalazio osagarriak	212,30

B. Jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	
- 300 m ² -tik behera	716,48
- 301 - 1.000 m ² bitarte	1592,21
- 1.001-2.500 m ² bitarte	2547,55
-2.501 m ² -tik gora	3396,73
Ostalaritza eta jolas jarduerak	
- 100 m ² -tik behera	318,45
- 101 - 250 m ² bitarte	636,88
- 251 - 500 m ² bitarte	1061,48

- 501 m ² -tik gora	2653,70
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	424,58
Bestelako jarduerak	
- 100 m ² -tik behera	212,30
- 101 - 250 m ² bitarte	424,58
- 251 - 500 m ² bitarte	636,88
- 501 m ² -tik gora	1698,36
Instalazio osagarriak	212,30

2. ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATU BEHARREKO JARDUERAK

Jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Tarifak	€
Produkzio-industria jarduera	1008,41
Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak	530,74
Bestelako jarduerak	
- 100 m ² -tik behera	265,37
- 101 - 250 m ² bitarte	530,74
- 251 - 500 m ² bitarte	796,11
- 501 m ² -tik gora	1645,29
Instalazio osagarriak	265,37

f) Udal hilerriko zerbitzuak

Banakako zerbitzuak / Tarifak	€
Nitxo edo panteoian lurperatzea	92,97
Lurrean hobiratzeagatik	341,85
Panteoietan barrualdeko garbiketa eta gorpuzkinak berriro kokatzea	222,99
Gorpuzkinak hobitik ateratzea eta lekualdatzea	111,57
Banaka lurperatzeko nitxoak emateagatik	594,37
Hezurtegiaren kontzesioa, ixtea eta gorpuzkinak lekualdatzea barne	634,51
Kolonbario baten kontzesioa, ixtea barne	564,79
Gorpuzkinak erraustea	300,95
Beste hilerrietatik datozen gorpuzkinak erraustea	455,84
Jabea edo jabeak hil direla-eta, hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo zati batean eskuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete igaro baino lehenago egin badira.	122,78
Jabea edo jabeak hil direla-eta, hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo zati batean eskuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete igaro eta gero egin badira	163,70

Hilerria mantentzeko zerbitzua

Tarifak	€
Panteoi-kontzesiodun bakoitzak, urteko	72,40
Nitxo edo lurreko hilobiren kontzesiodun bakoitzak, urteko	43,41
Hezurtegi edo kolonbarioren kontzesiodun bakoitzak, urteko	14,54

g) Gizarte zerbitzuak

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Tarifak	Gehiengoa €/orduko
Lanegunak	15,00
Jaiegunak	19,80

- Tasa hau aldizkakoa da, zergaldia bat dator hilabete naturalarekin. Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko duen tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerbitzua erregulatzen duen araudian ezarritako baremoak hartuko dira kontuan (Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal araudia).

EGUNEKO ZENTROA

Foru Aldundiak finkatutako baremoen arabera aplikatuko dira tasak.

ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK

Kontzeptua	Gehineko Tarifa/plaza/eguna
Plazaren prezioa pertsonako	23,41
Partekatutako eguneko plazaren prezioa pertsonako	16,31

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko duen tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerbitzua erregulatzen duen araudian ezarritako baremoak hartuko dira kontuan (Zarauzko Udalean Adineko pertsonentzako babespeko apartamentuak arautzeko erregelamenua).

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARTAMENTUAK:

Foru Aldundiak finkatutako baremoen arabera aplikatuko dira tasak.

GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUAK

Tarifa	Gehiengoa 450,00 €/ hileko eta apartamentuko
---------------	---

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko duen tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerbitzua erregulatzen duen araudian ezarritako baremoak hartuko dira kontuan (Zarauzko Udalean Gizarte larrialdiko apartamentuen arautegia).

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HARRERA-APARTAMENTUA

Tarifa	0,00 €/ egun eta plazako
---------------	---------------------------------

GIZARTE ZERBITZUEN BEHARRETARAKO BESTELAKO HARRERA APARTAMENTUAK

Programa bakoitzantzeko onartzen den arategiaren arabera aplikatuko dira tarifak.

Tarifa	€
Nazioarteko babesa eskatzen dutenen edota jasotzen dutenen programarako apartamentua (IZEN ALDAKETA PROPOSATZEN DA)	Gehiengoa 300,00 €/ hileko eta apartamentuko
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako harrera apartamentua	Gehiengoa 150,00 €/ hileko eta gelako

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko duen tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerbitzua erregulatzen duen araudian ezarritako baremoak hartuko dira kontuan (Zarauzko Udalean Nazioarteko babesa eskatzen dutenen edo jasotzen dutenen programako apartamentuen erregelamendua eta Zarauzko Udalean Gizarte larrialdiko apartamentuen arautegia)

h) Udal merkatua

Tarifa	€
Bankuetako salmenta-postu irekiak, salmenta-postu eta hilabeteko	16,78
Salmenta-postu finkoak, m ² edo frakzioko eta hilabeteko	16,78
Lege Zaharren enparantzako hazien salmenta-postua	37,03

i) Ibilgailuak herri-bidetik jaso edo bertan geldiaraztea

Ibilgailu mota	Ibilgailua erretiratzea	Ibilgailua egun edo frakzio batez gordetzea	Ibilgailua 24 orduz edo frakzio batez ibilgetzea	Ibilgailua 24 ordutik gora ibilgetzea
Bizikletak	9,57	2,12	4,77	2,02
Ziklomotorrak	15,84	4,20	15,17	3,93
Motozikletak, trizikloak, moto-gurdiak edo antzekoak	31,47	4,20	29,20	3,93
Turismoak, kamionetak eta antzekoak, 3.000 kg-tik beherako tona gordina	90,40	15,84	58,18	14,75
Gainontzeko ibilgailuak	62,84	15,84	72,78	21,89
3.000 eta 7.500 kg bitarteko tona gordineko kamioiak	Zerbitzuaren kostuaren arabera	47,16	218,01	43,69
7.500 kg-tik gorako auto eta kamioiak	Zerbitzuaren kostuaren arabera	47,16	218,01	43,69

l) Zerbitzu higienikoak

Tarifak	€
Itsasertzeko pasealekuko dutxak	1,60
Itsasertzeko pasealekuko komunak	0,60

m) Agiriak izapidetu eta egitea

Hirigintza lizentziak:	€
Obrak jakinaraztea	21,96
Partzelak eta eraikinak banantzeko / elkartzeko lizentzia	81,94
Obra lizentzia eta exekuzio aginduak:	
Aurrekontua 20.000 € baino txikiagoa	43,91
Aurrekontua 20.000 eta 100.000,99 € bitartekoa	146,28
Aurrekontua 100.001 eta 500.000 € bitartekoa	438,49
Aurrekontua 500.000 €-tik gorakoa	876,88
Lehen erabilera, okupazio eta erabilera aldaketarako lizentziak:	
Etxebizitza bakoitzeko	29,29
50 m ² baino gutxiagoko lokal komertzialak eta jarduera profesionalekoak	29,29
50 m ² edo gehiagoko lokal komertzialak eta jarduera profesionalekoak	73,14
Etxebizitzarekin loturarik ez duten garaje eta trastelekuak	14,71
Familia bakarreko edo biko etxebizitzak	233,90
500 m ² -tik beherako pabilioi industrialak	233,90
Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikin bakoitzeko	233,90
500 m ² edo gehiagoko pabilioi industrialak	321,63
Obra lizentziak eskatu eta ukatu egiten badira, ez da tasarik aplikatuko.	
Bide publikotik ikus daitezkeen publizitate-kartelak jartzeko lizentziak:	
12 m ² -tik beherako publizitate-kartelak	43,91
12 eta 32 m ² bitarteko publizitate-kartelak	95,11
32 m ² -tik gorako publizitate-kartelak	146,28

Hirigintza txostenak	€
Oinarrizko txostenak	37,16
Hirigintzako plangintza eta ordenantzei buruzko txosten orokorrak	146,28
Hirigintza zedulak	87,78
Eraikuntza proiektuen bideragarritasunari buruzko txostenak	175,45

Hirigintzako plangintza/kudeaketarako proposamenen bideragarritasunari buruzko txostenak	219,25
Interesdunak eskatuta, aurre deklarazioen espedienteetan txostena egitea	2.426,11

Tarifak	€
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia	212,62
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia, animalia animalia-babesle batean adoptatzen bada	191,36
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia berritzea	106,46
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia berritzea, animalia animalia-babesle batean adoptatzen bada	95,82
Udaltzaingoak egindako txostenak	32,45
Zigor-espedienteen kopiak bidaltzea	15,85
Obra, deskarga, etab. egiteko, aparkalekua gordetzea *	20,00
Ondasun Higiezinetan egindako kalteei buruzko udal txostenak	10,49
Udal zerbitzuetara atxiki gabeko ibilgailu astunak, hiri bideetan nahiz landa bideetan, zirkulatzeko baimenak	77,06
Udal funtzionarioen postuetan aukeratze-prozesuan izena ematea (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu bidezkoetan izan ezik)	8,13
FOTOKOPIAK:	
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (t/b - DIN A4)	0,10
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan - DIN A4)	0,50
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (t/b - DIN A3)	0,15
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan - DIN A3)	1,00
Udal liburutegia: Galdutako txartela berritzeagatik	3,55
Udal liburutegia: Galdutako liburua berriz jartzea	Liburu berdina edo antzekoa entregatzea

* 6 Ordenantza Fiskalaren A) atalean jasotako "Obra, deskarga, etab. egiteko gordetako aparkaleku, oinezko gune, espaloi eta abar, 10 m² edo frakzioa orduko edo eguneko" egitatea aplikatzearen ondorioz tasaren zenbatekoa 20,00 €tara iristen ez denean, ordaindu beharreko gutxiengoa 20,00 €ko tasa izango da.

n) Udal zerbitzu eta instalazioak erabilera

Tarifak	€
Udaltxeko aretoa	127,38
Etkezabalako aretoa	69,53

8. ORDENANTZA: ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

b) UDAL TXAKURTEGIKO ZERBITZUA: indargabetua

c) GARRAIO PUBLIKOA

ITG tarifa-sisteman araututako tarifak eta erregelamendu horretan xedatutakoak aplikatuko dira, honako hauetan oinarrituta: a) Tarifen integrazioa sistema jartzeko Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmena (Udalbatzarraren 2013ko irailaren 25eko akordioa) eta b) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua (Udalbatzarraren 2014ko azaroaren 26ko akordioa).

GAUEKO TAXI-BUS ZERBITZUA:

Zarauzko Udalak, aldi baterako edota hainbat egunetan, herritarrei eskaintzen dien garraio zerbitzua. Garraio zerbitzua gauzez emango da eta etxera buelta segurua bermatzea du helburu. Beti kokapen berdinetik irtengo du eta ezin du bidean bezerorik jaso. Zerbitzu partekatua da, alegia, bidaia bakoitzean hainbat erabiltzaile eramango ditu.

Tarifa	Ibilgailu bakoitzeko joan-etorria
Irteera geltokitik herriko edozein tokira, Talai Mendi goia ezik	2,00 €
Zerbitzua Talai Mendi goiara	3,50 €

e) ZARAUZKO TURISMO BULEGOA:

Tarifak (BEZ sartuta)	€
Boligrafoa	1,00
Boligrafo argiduna	3,55
Metalezko giltzatak	3,55
Gomazko giltzatak	3,05
Helduen kamiseta	12,70
Umeen kamiseta	8,60
Bisera	7,10
Intsignia-pina	2,05
Libreta	2,55
Arkatza (Swarovski)	1,50
Pen Drive-a (16GB)	12,70
Motxila	3,95
Balea	15,20
Posterra	3,05
Sisters poltsa	10,15
Sisters motxila	12,15
Sisters katilua	10,15
Sisters koaderno	8,10
Sisters liburua	15,15
Sisters giltzatak	8,10
Sister Kandela	17,25
Sisters orri markatzailea	9,15
Mugikorraren kargagailua	15,20
“Toldotxo” platera	5,05
Likidoentzako bidoia	3,95
Margoak	1,50
Erraldoiak	13,20
Katilua (Berria)	7,00

f) KULTURA ETA ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

ZERBITZU ETA INSTALAZIO KULTURALEN ERABILERA UDAL ARGAZKI ARTXIBOA:

Zarauzko Udal Argazki Artxiboa - Archivo Fotografico Municipal de Zarautzek (ZUAA-AFMZ) funtsen gaineko eskubide guztiak ditu.

Prezioa	€
Erabilera Pribatua / Ez Pribatua (irabazi-asmorik gabekoa): CD (TIFF/JPEG):	4,75
Erabilera Pribatua / Ez Pribatua (irabazi-asmoa duena): CD (TIFF/JPEG):	63,00

«Kultur taldeek» eta «gizarte izaerako elkarteek» irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiten dituztenean:	Doako lagapena
«Kultur taldeek» eta «gizarte izaerako elkarteek» irabazi-asmoa duten jarduerak egiten dituztenean:	63,00
«Elkarte profesionalek» edo «sindikatuak» irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiten dituztenean:	4,75
«Elkarte profesionalek» edo «sindikatuak» irabazi-asmoa duten jarduerak egiten dituztenean:	63,00

KULTUR ZERBITZU ETA INSTALAZIOEN ERABILERA Modelo aretoaren erabilera

Tarifa	€
Eguneko tarifa	153,45

Modelo aretoko zerbitzuak

Oinarrizko zerbitzu orokorrak	€
Leihatila lanak, orduko*	17,50
Jendearen harrera eta akomodazioa, orduko*	19,25
Oinarrizko zerbitzu teknikoak	
Proiektatzaile arduraduna, orduko*	20,55
Argi eta soinu teknikaria, orduko*	28,30
Zama eta laguntza lanetako langilearena, orduko*	15,95

Sanz Enea Kultur Etxea

Tarifak	€
Erakusketa-gela (1 zk.)	66,66
Erakusketa-gela (2 zk.)	33,59
Erakusketa-gela (3 zk.)	33,59
Erakusketa-gela (4 zk.)	66,66

Gaztelekua

Tarifak	egun osoa, €	egun erdia, €
Bilera-gela	36,85	22,11
Ikuskizun aretoa	122,44	73,46
Tailer gela bakoitzeko	74,20	44,52
Zinema pilotalekuko kantxa	152,73	91,64

Tarifak	€
Zinema frontoia alokatzea argirik gabe, orduko	14,00
Zinema frontoia alokatzea argiarekin, orduko	18,65
Zinema frontoia, hiruhileko, argirik gabe, abonatuak	11,70
Zinema frontoia, hiruhileko, argiarekin, abonatuak	16,40

g) UDAL KIROLDEGIA ETA ASTI ZELAIA

Hileko abonu-kuotak	Tarifa, €	Tarifa soziala, €
FAMILIAK-Bizikidetzaren unitatea		
Familiarena	35,87	14,35
Guraso bat gehi seme-alaba bat	27,59	11,04
Guraso bat gehi bi seme-alaba edo gehiago	30,36	12,14
BANAKAKOAK		

Haurtxoak, 0 tik 2 urte artekoak	0,00	0,00
Haurrak eta nerabeak, 3 tik 22 urte artekoak	11,04	4,42
Gazteak, 23tik 26 urte arte	16,33	3,27
Helduak I, 27tik 64 urte artekoak	22,08	8,83
Helduak II, 65etik 79 urte artekoak	11,04	4,42
Helduak III, 80 urte edo gorakoak	0,00	0,00

- Alta berrien matrikula: tarifaren hilabete bateko prezioa ordainduko da matrikula moduan; tarifa sozialaren onuradun izateko eskubidea dutenek matrikulan % 100eko hobaria izango dute.
- Helbideratutako abonua hileroko eta automatikoki luzatuko dira dagokion erabilera ahalbideratu ahal izateko.
- Helbideratu gabeko abonuen ordainketak, hilabete bakoitzeko lehenengo 5 laneguneko epealdian jasota izan behar du Udalak erabilera egin ahal izateko.
- Baha hilaren 25a baino lehen eskatu behar da eta hurrengo hilabetetik aurrera sartuko da indarrean.
- Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:
 - Eskatzaileak,
 - Bere ezkontideak (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsonak (behar bezala frogatuta baldin badago), eta
 - Bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabek (22 urte bete arte). Familia liburua aurkeztuko da.
- Adinari dagokion tarifa aldaketa, jaioteguna kontuan izan eta hurrengo hilabetean aplikatuko da automatikoki; Tarifa sozialaren hobaria duten familia bizikidetzak unitatei ez zaie banakako hileko abonua kuota kobraketa aplikatuko 23 urtetik aurrera.
- Federatuen kasuan ere, tarifa berberak aplikatuko dira, baldin eta besterik adierazten ez bada Zarauzko Udalak kirol elkartearekin egindako hitzarmenean.
- Tarifa soziala: Zarauzko Udaleko Tarifa sozialaren Ordenantzan zehazten diren irizpide tekniko, prozedura eta baldintzen arabera aplikatuko da.

Ikastaroak, hileko prezioak	Abonatuak, €	Ez abonatuak, €
Aretoetan, saio 1 astean	14,65	28,25
Aretoetan, 2 saio astean	29,25	54,10
Aretoetan, 3 saio astean	39,35	64,30
Igerilekuetan, saio 1 astean	17,15	30,75
Igerilekuetan, 2 saio astean	34,90	59,75
Igerilekuetan, 3 saio astean	50,70	75,65
Udal programak	0,00	0,00
Ikastaroak, hiruhileko	Abonatuak, €	Ez abonatuak, €
Igerilekuetan, umeen ikastaroak, saio 1 astean	46,63	79,83
Igerilekuetan, umeen ikastaroak, 2 saio astean	93,25	159,65
Igerilekuetan, helduen ikastaroak, saio 1 astean	51,45	92,25
Igerilekuetan, helduen ikastaroak, 2 saio astean	102,90	184,50

Ikastaroetako arauak:

- Saio batek gehienez 60 minutuko iraupena izango du.
- Ikasturtearen epe mugak: 2021eko irailaren 1 / 2022ko irailaren 1.
- Interes publikoa duen Udal programa izendatzeko baldintza: Euskadiko kirolaren Ekainaren 11ko 14/1998-ko legea edo eta eratorritako Dekretu zein Foru Aginduen baitako programa izatea edo eta Alkate Dekretu bidez izendapena jasotzea.

Sarrerak	Tarifa (€)
Eguneko sarrera, 18 urtetik beherakoak	3,35
Eguneko sarrera, 18 urtetik gorakoak	5,95
Bonua: 10 sarrera, 18 urtetik behera	30,80
Bonua: 10 sarrera, 18 urtetik gora	51,45

- Bonoen iraugitze data urtebetekoa izango da.

Alokairuak	Tarifa (€)
Pista edo gimnasioak alokatzea, orduko, aldagelarik gabe	39,30
Pista edo gimnasioak alokatzea, orduko, aldagelarekin	52,40
Astiko zelaiak alokatzea, orduko, aldagelarik gabe	39,30
Astiko zelaiak alokatzea, orduko, aldagelarekin	52,40
Aritzbatalde frontoia alokatzea, orduko bazkideak	15,25
Aritzbatalde frontoia alokatzea, orduko ez bazkideak	21,10
Aritzbatalde frontoia hiruhilekoa, abonatuak, orduko	12,90
Aritzbatalde frontoia hiruhilekoa, z abonatuak, orduko	18,65
Squash (ez abonatuak)	5,90
Squash (abonatuak)	0,90
Igerilekua, kalea/orduko erreserbatzea	43,80

Beste zerbitzu batzuk	Tarifa (€)
Kirol material txikia (Bainu-txanoak, eskuoihalak, e.a.)	5,20
Dutxa	1,15
Galdutako edo puskatutako txartela/giltzak berritzea	3,15

Prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira udalak baimendutako ekimen kulturalak, sozialak eta kirolekoak.

Udal programak	Tarifa (€)
Igerian ikasteko eskola ume ikastaro programa (IIEP)	0,00
Senior-aktiboa sustapen programa (ikastaroak: soinketa, <i>tipi-tapa</i> , besterik)	0,00
Dibertsitate funtzionala-aktiboa sustapen programa (instalazio erabilera)	0,00
Gaztea-aktiboa sustapen programa (instalazio erabilera)	0,00
Emakumea-aktiboa sustapen programa (instalazio erabilera)	0,00
Sedentarioa-aktiboa sustapen programa (instalazio erabilera eta ikastaroa)	0,00
Gizarte eskuhartze eta kooperazio programak (instalazio erabilera eta ikastaroak)	0,00
<i>Babesa zibila</i> -programa (instalazio erabilera)	0,00
Aktiboa-ikastaroak, hileko prezioak, saio asteko	13,11

j) PASABIDE PLAKAK

Tarifak	€
Pasabide plakak	35,00

l) BERDINTASUN ARLOA

Ikastaroak

Berdintasun arloak antolatzen duen edozein ikastarotan parte hartzeko matrikula:

Tarifak	€
10 ordu arteko ikastaroak	10,00
11tik 20 ordura bitarteko ikastaroak	15,00
21etik 30 ordura bitarteko ikastaroak	20,00
31tik 50 ordura bitarteko ikastaroak	30,00
51tik 70 ordura bitarteko ikastaroak	40,00
70 ordutik gorako ikastaroak	50,00

Gizarte zerbitzuetako profesionalak irizten badu herritarraren gizarteratzean proposatutako ibilbidearen testuinguruan ikastaro edo jarduera berezietan partehartzea bultzatu behar duela mesede egiten diolako, partehartzailea ordainketa egitetik salbuetsita egongo da.

n) GIZARTE ZERBITZUETAKO IKASTAROAK

Tarifak	€
10 ordu arteko ikastaroak	10,00
11tik 20 ordura bitarteko ikastaroak	15,00
20 ordutik gorako ikastaroak	20,00
Harrera-Euskara	10,00

Gizarte zerbitzuetako profesionalak irizten badu herritarraren gizarteratzean proposatutako ibilbidearen testuinguruan ikastaro edo jarduera berezietan partehartzea bultzatu behar duela mesede egiten diolako, partehartzailea ordainketa egitetik salbuetsita egongo da.

BESTELAKO JARDUERA BATZU

Tarifak	€
Adinekoen bazkaria pertsonako	15,00
Beratakoak, Zarauztik mundura bazkariak pertsonako	10,00

Gizarte zerbitzuetako profesionalak irizten badu herritarraren gizarteratzean proposatutako ibilbidearen testuinguruan ikastaro edo jarduera berezietan partehartzea bultzatu behar duela mesede egiten diolako, partehartzailea ordainketa egitetik salbuetsita egongo da.

p) DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN ZARAUZKO UDALERRIKO PERTSONENTZAKO AISIALDI PROGRAMA ZERBITZUA tarifa soziala

Tarifak	€
Kukufrika programa, hileko	11,50
Udarako udalekuak, hamabostaldiko	51,50

Gizarte zerbitzuetako profesionalak irizten badu herritarraren gizarteratzean proposatutako ibilbidearen testuinguruan ikastaro edo jarduera berezietan partehartzea bultzatu behar duela mesede egiten diolako, partehartzailea ordainketa egitetik salbuetsita egongo da.

11. ORDENANTZA FISKALA TAXI LIZENTZIAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

Zergazko kuotak:

Egitate zergagarria	€
1. Lizentziak ematea	499,79

2. Titularraren heriotza, erretiroa edo ezgaitasuna dela eta ezkontide alargunaren zein derrigorrezko oinordekoen alde burututako lizentzi eskualdaketak baimentzea.	499,79
3. Aurreko atalean sartzen ez diren eskualdaketak baimentzea.	3887,26

14 ORDENANTZA FISKALA.- UDAL- TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPEN ETA HOBARIEI BURUZKO ARAUDIA

AURKIBIDEA

1. Artikulua.- Arautegiaren Xedea.
2. Artikulua.- Baldintzak
- 3.-Aplikatu beharreko hoberiak eta salbuespenak
4. Artikulua.- Kudeaketa

ARAUDIA

1. Artikulua.- Arautegiaren Xedea.

Araudi honen xedea da jarraian adierazten diren tasek eta prezio publikoen ordainketatik aplikatu beharreko salbuespenak eta hoberiak finkatzea, honako zerbitzu hauek emateagatik:

- Udaleku irekiak
- Udal haur eskolako jangela
- Dibertsitate funtzionala dutenei zuzendutako aisialdi programak
- Udal kiroldegia
- Udal Musika Eskola
- Psikomotrizitate zerbitzua

2.- Artikulua.-Baldintzak

Aipatutako tasetarako eta prezio publikoetarako ezarritako salbuespenen eta hoberien onuradun izateko, eskatzaileak, udalerrian erroldatua 6 hilabetez egon behar du.

Hoberi edo salbuespena eskatu egin beharko da.

Bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa izango da kontutan. Zehazki, ondorengo gizarte laguntza baten titular edo/eta onuradun izan beharko dute eskaera aurkezten duten momentuan, edota 6 hilabete aurreragoko epean:

- a. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (147/2010 Dekretua, maiatzaren 25koa)
- b. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (4/2011 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa)
- c. Diru baliabide eskasak dituzten pertsona eta familiei zuzendutako banakako udal laguntzak. (2002-09-06an argitaratua GAO 168 zk.).
- d. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (IMV) (20/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 29koa)

3.- Artikulua. Aplikatu beharreko salbuespen edo hoberiak

Prezio Publikoak:

- Udaleku Irekiak: % 100
- Udal Haur Eskola jangela: % 70
- Dibertsitate funtzionala: Kukufraka programa eta Udarako udalekuak: % 80
- Berdintasun arloko ikastaroak: % 100
- Udal Kiroldegia:
 - Hileko abonua kuotak:
 - Familiak: % 60
 - Banakakoak:
 - Haurrak eta nerabeak, 3 tik 22 urte artekoak: % 80

- Gazteak eta helduak: % 60
 - Alta berrien matrikula: % 100
 - Psikomotrizitatea: % 80
 - Udal Musika Eskola:
 - Ikastaroen prezioak:
 - Musika hizkuntza eta instrumentuak: % 75
 - Musika tailerra eta instrumentu multzoak: % 65
 - Musikoterapia: % 80
 - Matrikula: % 100
- Ondoren zehazten diren zerbitzu hauetan salbuespenen edo hobarien onuradun direnei, zerbitzuetara joatea behartzen zaie, onura horiek mantenduko badituzte:
 - Udaleku Irekiak
 - Udal Haur Eskola jangela
 - Psikomotrizitatea:
 - Dibertsitate funtzionaleko aisialdi programak
 - Berdintasun arloko ikastaroak
 - Udal Musika Eskola
 -

Onuradunek zerbitzu horietan salbuespena edo hobaria izateko eskubidea galdu egingo dute baldin eta hilabete batean justifikatu gabeko % 25 asistentzia falta baino gehiago izaten badituzte, kasu horretan dagokien tasa ordaindu beharko baitute.

4. Artikulua.- Kudeaketa.

Salbuespenak eta hobariak onuradunekin sortutako zerrenda baten bidez kudeatuko du dagokion departamentuak; zerrenda, araudi honetan jasotako tasak eta prezio publikoak ordaintzetik salbuespenak edo onuradun gertatu diren subjektu pasiboek osatua izango da.

salbuespena edo hobaria lortuko badu, subjektu pasiboak nahitaez aurkeztu beharko du horretarako eskabidea.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Zarauzko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroetan eta "NISAE" elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean. 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du. Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatuko balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Udalak egoera sozioekonomikoa urtero egiaztatuko du. Subjektu pasiboaren egoera sozioekonomikoan aldaketarik gertatu ezean, salbuespena edo hobaria urtero luzatuko da automatikoki.

Halaber, subjektu pasiboak behartuta egongo dira zergapeko jarduerak gauzatzean gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak jakinaraztea, baldin eta aldaketa horien eragina badute jarduera horiek zenbatzeko orduan, horretarako sortutako matrikulan sartu diren ala ez erabakitzeak. Aldaketa horiek hurrengo hilabetetik aurrera izango dute eragina.

Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak, hala badagokio, bi erataria egin ahalko dira:

- Aurrez aurre, eskaera bideratzen den zerbitzuan.
- Erregistro telematiko bidez eskaera bideratzen den zerbitzuari zuzenduta.

Kudeaketa, baliabide informatikoen bidez egingo da. Departamentu edo zerbitzu bakoitzari dagokio eskaerak tramitatzea eta errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea. Era berean, HAZ, departamentu edota zerbitzu bakoitzari dagokien herritarrei, araudi honetako gaietan laguntza eta informazioa emateko ardura.

Gizarte Zerbitzuei dagokie araudi honetan zehazten diren baldintzen jarraipena egitea, eguneraketa eta aldaketak proposatzea.

Era berean, departamentu honi dagokio, urteroko kontrolean, salbuetsita edo onuradunen zerrendatik ateratzen diren pertsona edo bizikidetzaren egoera gainbegiratzea eta behin betiko bajak proposatzea.

Baldin eta subjektu pasibo batek araudi honetan ezarritako baldintzetako edozein betetzen ez badu, galdu egingo du hemen ezarritako salbuespenez eta hobariez gozatzeko eskubidea.

Araudi honetan jaso gabeko egoera batean dagoen edozein herritarrek, bere egoera balora dezala eskatu ahalko dio Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari salbuetsita edo onuradunen zerrendan sartu behar den ala ez ebatzi dezan.

Puntu honetara iritsita, eta arratsaldeko zortziak eta bost direnean, **batzarburu** jaunak bilkura eten egin du, saioaren grabaketa-sistemaren arazo teknikoak konpontzeko. Handik hamabost minutura, zortziak eta hogeian berriro bilkurari ekin diote.

6.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA: LANPARDO PARTZELA (7 AREA – OD AZKEN PORTU –) ETA 12.3 AREA – OD KORTAZAR –. BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.

Espedientea: 2018H7000013

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=6>

Akordio-proposamena irakurri eta gero, **batzarburu jaunak** gaiaren inguruko azalpenak eman ditu. Ondoren, udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	20	10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2018. urtearen amaieran, Zarauzko Udalak plan orokorra aldatzeko espedientea abiatu zuen, partzela hauei antolamendu eta kalifikazio berria emateko: Lanpardo kalea 1 (7 area – OD Azken Portu –) eta Kortazar (12.3 area). Honakoak dira helburuak:

- Lanpardo partzelan etxebizitza babestuen (25 inguru) eta garajeak eraikitzea.
- Kortazar partzelan ekipamendu publikoa eta garajeak eraikitzea.

Espedienteari ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatu zitzaion. Ingurumen-organoak, 2021eko martxoaren 2ko ebazpenaren bidez,

derrigorrezko ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen.

2021eko apirilaren 29ko osoko bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldaketari, partzela hauei antolamendu eta kalifikazio berria emateko: Lanpardo (7 area –OD Azken Portu–) eta Kortazar (12.3 area).

Hasierako onespeneren ondoren, udal plangintzako aholku batzordea elkartu, eta hirigintza-proposamena eztabaidatu zuten 2021eko ekainaren 23ko bileran. Irizpena aldekoa izan zen.

Espedientea jendaurreko tramitean egon zen 45 eguneko epean, eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Bestalde, aginduzko txostenak eskatu ziren, araudi sektorialarekin bat etorritz.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta, legezko gehiengo osoaren “quorum”-arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin-behineko onespena ematea Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldaketari, partzela hauei antolamendu eta kalifikazio berria emateko: Lanpardo (7 area –OD Azken Portu–) eta Kortazar (12.3 area).

Behin-behinean onartutako dokumentua hasierako onespena jaso zuen berbera da (2021eko apirileko agiria), baina eranskin bat gehitu zaio: proposatutako garapenen hornidura bermatzeko eskari berrien kuantifikazioa (6. eranskina, 2021eko uztailekoa).

Bigarrena.- Onartutako dokumentua eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, nahitaezko txostena egin dezan, behin betiko onartu aurretik.

7.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Espedientea: 2017I1200003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=7>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, udal taldeen iritzi trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	13	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
--------------	----	--

Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz eta adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2017ko ekainaren 29an, Udaleko Osoko Bilkurak honako hauek onartu zituen: ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAren kontratua esleitzeko administrazio-klausulen eta baldintza teknikoan agiriak eta kontratu hori prozedura irekiaren bidez esleitzeko deialdia.

Zegokion administrazio-espeditentea izapidetu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urtarrilaren 29ko akordio bidez erabaki zuen aipaturiko zerbitzua egiteko kontratua OHL SERVICIOS-INGESAN SA enpresari adjudikatzea. Kontratuaren baldintzak, exekuzio-epaiek eta ordaintzeko modua deialdiaren oinarri izan diren baldintza-agirian adierazitakoak dira, eta esleipendunak egindako eskaintzarekin bat etorri da. Kontratua 2018ko martxoaren 2an formalizatu zen eta zerbitzua, berriz, 2018ko martxoaren 15ean ematen hasi zen.

Udaleko Osoko Bilkurak, 2019ko azaroaren 28an eta 2020ko azaroaren 26an egindako bilkuretan, kontratua aldatzea erabaki zuen, elementu berriak sartzeko eta eraikin batzuen garbiketa-zerbitzua indartzeko, Covid-19ak sortutako egoeratik.

Kontratua arautzen duten administrazio-klausulen agiriko bosgarren klausulak dio kontratuak lau urteko iraupena izango duela, formalizatzen denetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratua luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere sei urtekoa izango da. Alderen batek kontratua amaitu nahi izanez gero, beste aldeari adierazi beharko dio kontratua amaitu baino gutxienez zortzi hilabete lehenago.

Halaber, kontratuaren iraunaldia bukatu ondoren, enpresa adjudikaziodunak, adjudikazioaren xede den zerbitzua ematen jarraitu beharko du, harik eta adjudikaziodun berriak zerbitzua bere gain hartu arte. Bitarte horretan, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

Udalaren eta enpresa esleipendunaren ordezkarien artean hainbat bilera egin ondoren, agerian geratu da ezin izan dela kontratua gauzatu jarraitu kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik. Arrazoi horiek jasota daude Zarauzko Udaleko Azpiegiturak, obra txikiak eta zerbitzuetako zinegotzi arduradunak 2021eko uztailaren 29an egindako txostenean, eta, horregatik, kontratua bi aldean adostasunez amaitzea adostu da.

Kontratistari egin beharreko entzunaldi-izapidea egin da, eta ados agertu da kontratua suntsiaraztearekin.

Ikusita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 223. artikuluan eta hurrengoetan eta 308. eta 309. artikuluetan xedatutakoa - Kontratuari aplikatzekoa -, urriaren 12ko 1098/2001 Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena

109. artikulua eta hurrengoak, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 114. artikulua, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren proposamenez, eta Lurralde arloko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- 2018ko martxoaren 2an OHL SERVICIOS-INGESAN SA enpresarekin ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAren kontratua elkarrekin adostuta suntsiaraztea, kontratua suntsiaraztearen ondoriozko kalte-galerak erreklamatzeko eskubiderik gabe.

Bigarrena.- OHL SERVICIOS-INGESAN SA enpresak jarritako bermeak itzultzea.

Hirugarrena.- OHL SERVICIOS INGESAN SA enpresak zerbitzua ematen jarraitu beharko du esleipendun berriak zerbitzua bere gain hartu arte. Bitarte horretan, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

8.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

Espedientea: 2021IK200004

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=8>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du **garduneko idazkariak**. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	13	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

Kontratuaren gaia da ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA esleitzea, Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak xedatutakoaren arabera.

Kontratua gauzatzeko epea bi urtekoa izango da formalizatzen denetik aurrera, eta luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da lau urtetik gorakoa izan.

Ikusita kontratazio horretarako Administrazio-klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria, bai eta Lurralde arloko informazio-batzordeak emandako irizpena ere, Udalbatzarrak, gehiengoz

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA kontratatzekeko administrazio-klausulen agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

Bigarrena.- Kontratu hori esleitzeko deialdia egitea, prozedura ireki bidez eta gehienezko lizitazio-prezio hauetan:

Lanegunez, orduko prezioa (P1):	37,00 € BEZ barne	30,58 € +6,42 € BEZ
Jaiegunez eta/edo gauez, orduko prezioa (P2):	42,50 € BEZ barne	35,12 € + 7,38 € BEZ
Urteko gutxi gorabeherako lizitazio prezioa	2.060.726,40 € BEZ barne	1.703.079,60 € + 357.646,80 € BEZ

Lizitazioari gutxi gorabeherako prezio hau jarri zaio: urteko 2.060.726,40 euro, BEZ sartuta. (1.703.079,60 euro + 357.646,80 euro BEZrena). Kopuru hori zerbitzuaren urteko gutxi gorabeherako kostua da, eta hor sartuta egongo dira zerbitzutik sortutako gastu guztiak.

Hirugarrena.- Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan.

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

Laugarrena.- Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Gai-ordenaren hurrengo puntuari heldu aurretik, **Goenaga** jaunak ohartarazi du, betiko prozedura segitzeko asmoz (mozioak eztabaidatzeko ordena erregistroan sarrera-orduren arabera izatea), EH-BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutakoaren aurretik aztertu beharko litzatekeela. **Batzarburuak**, gaueko bederatzia eta hamazazpi direnean, bilkura eten du gaia argitzeko. Ondoren, EH-BILDUko zinegotziaren eskaera zuzena dela ikusita, talde honen proposamena aurretik aztertuko dela adierazi du **alkate** jaunak, eta gaueko

bederatziak eta hogeirenean, berriro bilkurari ekin diote.

10.- EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

- Deskonektatu elektriketatik. Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoari buruzkoa.

Espedientea: 2021O0010006

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=9>

EH-BILDU udal taldearen proposamena irakurri du **Arozena** jaunak. Hona hemen testua:

DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa! ZIOA

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernu hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan. Gobernuak, politikariek, elektrikoek eta guztiek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sortutako eta baimendutako iruzurra.

Haiek izan ziren, Espainiako Estatua gobernatu duten alderdiak, bai PSOE eta baita PP ere, enpresa publikoak pribatizatu, saldu eta desegin zituztenak, sistema desarautuz eta "merkatuaren" esku utziz. Administrazio Kontseiluek kontrolatzen eta manipulatuak izan diren merkatuak ari gara, bi alderdiotako presidente eta ministro ohiez osaturikoa. Helburu bakarrarekin: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea.

Horrela eraiki zuten haien neurrira eginiko merkatu elektrikoa, energia merkeena garestienaren prezioan ordaintzera iristeraino. Argindarrarekin espekulatu eta manipulatuak izan diren merkatuak, ura edo haizea bezalako ondasun publikoen bitartez. Oligopolioko enpresa handiek, Endesa, Iberdrola edota Naturgyk, milioi askoko irabaziak metatzen dituzte urtero, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez. Zerutik eroritako etekinak dituen sare oso bat osatu dute urteotan, argindar konpainietako akziodunen poltsikoetan amaitzen dena. Negozio biribila.

Egoera horren aurrean, eskandalu horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez ditu hartu Espainiako Gobernuak, iritzi publikoaren eta indar politiko subiranisten eta aurrerakoen presioak derrigortu duen arte. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresa xantaia egin diote eta mehatxura jo dute; ez bakarrik Espainiako Gobernuari, baita argindarraren faktura merkatuko zaiela espero duten milaka herritarrei ere. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoen arteko pulsu baten aurrean gaude, finean.

Bada, katalanek, euskal herritarrek eta galiziarrek, fronte komun bat osatu dugu gaur oligopolio energetikoaren mehatxuen aurka, Espainiako Gobernuak iruzur elektrikoari egiturazko neurriekin aurre egiteko erakutsi duen borondate eta ekintza falta salatzeaz gain.

Izan ere, gure herrialdeek, Herrialde Katalanek, Galizak eta Euskal Herriak, ez dute iruzur elektrikoari eta horren erantzuleei aurre egiteko beharrezkoa dugun subiranotasuna. Gure parlamentuak eta gobernuak Espainiako Estatuari lotuta daude, eta horrek guzti hori gertatzea ahalbidetzen du. Gaur- gaurkoz, merkatuan esku hartu ahal izateko, oligopolio elektrikoari aurre egiteko eta gobernuak ausardia faltagatik hartu nahi ez dituen neurriak martxan jartzeko tresna propioak ukatzen zaizkigu.

Espainiako Estatuarekiko dugun menpekotasun energetiko eta politikoa oztopo argi bat da gure herritarrek enpresek egiten dituzten gehiegikerietatik babesteko. Prezioei muga jartzea, arlo publikotik esku hartzea eta kontrolatzea eragozten digu horrek. Tarifa propioak, arau propioak, merkatu propioak eta, beraz, irtenbide propioak sortzea eragozten digu. Azken finean, publikoa zena berreskuratzea galarazten digu.

Gure herriek subiranotasun energetikoa ez izateak oso garesti ateratzen zaigu galiziarroi, katalanoi eta euskal herritarroi. Bada garaia gure nazioen eraikuntzan ere burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

MOZIOA

Hori dela eta, Zarauzko Udalak honako hau adierazten du:

1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larri salatzen du.
2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra oinarrizko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.
3. **Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernua** interpelatzen dugu, lankidetzeta publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.
4. Zarauzko Udalak urriaren 8an, 22:00tatik 22:30etara deitutako itzalaldi masibo eta kazola-jotzeko deialdiarekin bat egiten du.

Podemos-Equo Berdeak udal taldearen bozeramaileak galdetu dio EH-Bildu udal taldeari ea mozioa puntuka bozkatzeko aukera onartuko duen. **Arozena** jaunak adostasuna adierazi ondoren, gaueko bederatziak eta berrogeita hamahiru minutu direnean, EAJ-PNV udal taldeak hamar minutuko etana eskatu du mozioa era honetan bozkatzeari buruz erabakitzeke.

Gaueko hamarrak eta hiru direnean, bilerari ekin diotenean, **EAJ-PNV Udal taldeko bozeramaileak** azaldu du mozioaren bigarren puntua beste modu batez idatzita, onartu egingo lukeela. Testu berria horrela geldituko litzateke:

2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak elkarlan publiko-pribatutik eraikitzeke eta argindarra oinarritzko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.

EH-Bildu udal taldearen bozeramaileak bost minutuko tartea eskatu du, erredakzio berria aztertzeke, eta gaueko hamarrak eta bost direnean, bilkura eten egin da.

Gaueko hamarrak eta hamar direnean, berriro ekin zaio saioari, eta **EH-Bildu udal taldeak** aldaketa onartzen duela baieztatu du.

Ondoren, puntuak banan bana bozkatu dira, eta emaitza hauek izan dira:

1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larri salatzen du.

Botoak alde:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Botoak aurka	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Abstentzioak:	-	

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak **ERABAKI DU EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioaren lehengo puntua ATZERA BOTATZEA.**

2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak elkarlan publiko-pribatutik eraikitzeke eta argindarra oinarritzko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.

Botoak alde:	18	10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu
Botoak aurka	3	2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki du Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki du **EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioaren bigarren puntua ONARTZEA.**

3. Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernua interpelatzen dugu, lankidetzak publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.

Botoak alde:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Botoak aurka	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Abstentzioak:	-	

Era honetan, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioaren hirugarren puntua ATZERA BOTATZEA.

4. Zarauzko Udalak urriaren 8an, 22:00etatik 22:30etara deitutako itzalaldi masibo eta kazola-jotzeko deialdiarekin bat egiten du.

Botoak alde:	8	8 EH Bildu
Botoak aurka	13	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Azkenik, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioaren laugarren puntua ATZERA BOTATZEA.

9.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

- **Energia trantsizioarekin konektatzeari buruzkoa.**

2021O0010007

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=10>

Segidan, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du **Arana** jaunak. Hona hemen testua:

KONEKTATU ENERGIA TRANTSIZIOAREKIN ZIOA

Trantsizio energetikoari aurre egiteko lana - Nahiz eta termino hori garai hartan normalizatuta ez egon - bultzatu zuen Eusko Jaurlaritza duela ia 40 urte Energiaren Euskal Erakundea sortzera. Petrolioarekiko mendekotasuna garrantzitsua zen, eta da oraindik ere. Orduetik, Euskadik energia berriztagarriak, eraginkortasuna eta baliabide propioen aldeko apustua bultzatzen dihardu, energia-eredu berri baterako trantsizio-prozesu horri aurre egiteko.

Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio, eta euskal energia-ereduak gero eta jasangarriagoa den eredu baterantz migratzen jarraitzen du. Eredu horrek kalitatezko hornidura lehiakorra bermatuko du, berriztagarrien ekarpen gero eta handiagoan oinarrituta eta petrolioaren deribatuen erabilera minimizatuta.

Herritarrek gero eta gehiago jabetzen dira klima-aldaketak dakarren erronkaren erantzule ere badirela. Gaur egun, babes handia ematen die Euskadin energia demokratizatzeko eta ingurumenarekiko berme osoz egiteko egokitu ditzakegun politikari.

Euskadi energia-eskaera handiko herrialdea da, batez ere duen industria-izaeragatik, baina garraioa da energia gehien kontsumitzen duen sektorea (kontsumitzen den energia guztiaren % 43). Enpresek merkatu elektrikorako sarbidea behar dute, baldintza lehiakorretan, ekonomiaren zati handi bat eta kalitatezko enplegu asko horren mende daudelako.

Balantzaren beste aldean, beste errealitate bat dugu: energia gutxi ekoiztea. Horrek kanpora erostera behartzen gaitu, eta beste batzuek ezartzen diguten prezioan egitera. Autosufizientzia eta burujabetza energetiko falta horrek elektrizitatearen prezioari eragiten dio, gure etxeetako argi-fakturari, batez ere ahulenei, eta gure enpresei eta haien lehiakortasunari.

Euskadin energia baliabide propioak ez kudeatzeari buruz hartutako erabakiak gure energia-eskariaren prezioak gora egitea ekarriko du datozen hilabeteetan; adibide gisa, daukagun gasa ekoizteari uko egin bazaio ere, EAEko familiek gas bat kontsumitzen dute, eta horren ondoriozko ekonomia- eta ingurumen-kostuarekin kanpotik inportatu behar da.

Demagogia- eta amorru-diskurtsoak zabaltzeaz harago, gure esku dauden baliabide eta ekimenekin jardun behar dugu. Irakurketa sinplista eta partzialetatik harago, eraikitzaileak izan behar dugu, eta ez ditugu baztertu behar ingurumen- eta energia-erronkari aurre egiteko bideak. Mota guztietako berriztagarriak (eta biltegiatze-soluzioak) areagotzea, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak barne, eta energia aurrezteko funtsezkoak dira Euskadiren subiranotasun energetikorako bidean.

MOZIOA

Baldintza horiek aintzat hartuta, Zarauzko Udalak honako hau proposatzen du:

- 1.- Udal honetan ordezkaturik gauden alderdiek Euskadin energia berriztagarriak ezartzeko eta energia aurrezteko duten konpromiso politikoa berrestea.
- 2.- Herritarren kontzientzia zorrotz eta egiazkoa sortzen laguntzea, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketaren erronkarekin bat etorritik jardutea errazteko.
- 3.-Zarautzen, trantsizio energetikoan dugun zeregina betetzen jarraitzea eta efizientzia, berriztagarriak eta energia kudeatzeko kooperatibak eta energia-komunitateak bultzatzeko baldintza egokiak sortzea.
- 4.- Herritarrei dei egitea energia-komunitateen autokontsumo formulekin bat egiteko aukera baloratu eta aztertzeke.
- 5.- Arlo ekonomiko, sozial, politiko eta akademikoko eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, energia-eskariak eta haren prezioak dakarten erronka komunari irtenbideak elkarrekin sortzeke.

Hizketaldiak bukatu ondoren, aurkeztutako proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Botoak aurka	1	1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki du EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozio ONARTZEA.

11.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210930&punto=11>

Segidan, **alkate jaunak**, aurreko bilkuran Salberdineko lanak egiten hasi ahal izateko jarri ziren bete beharreko baldintzak eta, bereziki, uren karakterizazioari buruzko amaierako txostenak aurkezteari buruz **Goenaga jaunak** egindako galderari erantzun dio.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarrak eta berrogeita hamabostean; eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.